


USTE GABEKO IZKETA BAT

(Azkeneko indar-neurtzeetan aldeera irabazia.)

NEGUEN biyotzean zan. Gau illun ikarati batean, aldiyan aldiyan, itsas aize chistuari kazkarabarren otsak lagun egiñaz, chalupacho batetik kai berriyen muturrean, legorreratu da gizaseme bat. Etzan kai guziyan argi baten zan-



tzurik: bakar bakarrik, kai-minganchoko inguru ayetan, ikusten zan, olezko chaola alako baten kristaletik, argi triste doi doya, cebo kandelan batek enlaten zuena, ziruriyela itzali nai zuela, lotaratzeko bertatik.

Gidatu zan zuzenean dierritarra, gau choriyen chiriska tristea entzunaz eta kontu aundiz, Ijentea kalean barrena, pareta zar eta zaldi leku usai dunak atzean utziyaz, plaza zarreko arruntaira edo arkupietarra, anche geldituaz zut zuta eudi jasa baten meriyo, ur estaliyen mutur guziyetatik chirriyuan ura zeriyo.

Aldi luze bat zeraman, kristau bizi bat ikusi gabe, Eskotilla kaleko kantoira bein edo beste azalduaz, gazteluko kanpanak jo zituenean geldi geldi amabiyak.

Anche bertan, gaztelu bidean bizi zan Anton Kachucha, arrantzale zarra, eta sagar zumo ederraren debotua, batez ere; eta gorroto biziya ziyon, kanpanen ots damorri ari, nonbait esnatzen zuelako bere lo gozotik, naiz pichar-terdi sagardo sabelean guri guri eraman.

Bakardade ortan arkitzen zan kanpo erriko gizona nora jo etzeki-yela; Putzu kalean barrena, plaza zar aldera artu zuenean Chirita satriak, bi aldiz Tolosan izana eta ukabillazoka arraultzak austen zituena, tortilla egiteko. Bazetorren pauso ariñean eta chistuka Urra Papito joaz, alderatu zanean dierritarren ingurura, zeñek bere pozean galdetu diyo gabonak emanaz oso modu onean:

—Aizazu, ¿ez alda serenorik erriyontan?

—¡Eztabadaizango!—dijoSSSSemaritarrak erdi farrez—.Badirabai, baña onla egualdi gaistua danian, amabiyetako echian dira.

—¿Konseju echian?

—¡Bai zera! ¡Nor bere echian!

—¿Ez dezubada esan serenuak dirala?

—¡Orrengatik bada! ¿Serenua nola nai dezu izatia onlako egualdi gaistuakin?

—Eta denbora ona danian?

—Orduban ez dute echerajoan biarrik: kanpua lo egiten dute.

—¿Etaezaldute iñork esnatzeko bildurrik?

—¿Ez dezu ikusten justiziyakuak dirala?

—¿Zenbat sereno dira?

—Izatezzazpi, baña ondo kontatzera bosteterdi.

—¿Zer da bada bat, erdiya?

—¡Ez, jauna, ez; ori da serenuetan zarrena, baña badakizu, gau batian alako ederki eserita lo zegüela, San Bizenteko zimintoyuan, lapurrak eraman zuten eta ezta geyago aren berririk.

—¡Lapurreta seriyua!

—Ez, jauna; lapurreta naturala! Reste serenua ezta beñere gabez echetik ateratzen.

—¿Orduban egunezko serenua da?

—Ez, jauna, ez; amabiyak diranian, andriak deitzen diyo. ¡Bernardo!..... ¡Benardo!..... ¡alcha! ¡alcha! amabiyak dirata.

—¿Eta esnatzen ez bada, zer egiten diyo?

—Katubekin tiratu arpegira esnatu dedin. Saltatuko da oyetik: *tri tra*, irikiko ditu leyuak eta andik kantatzen du salero guziyakin ¡*Las doce y sereno!* Gero *tri tra* ichiko ditu berriz, artuko du kopa bat *ju ju* edo bi *si a mano viene* eta ¡*kašo* mutill, zanbal oyera, goizeko zortzi-yak arte.

—¿Eta eudiya danian zer egiten du?

—Utzi; egin dezala nai dubena.

—¡Orišen da gizon jenerua!

—¡Zer nai dezu izatia, odolkiya azal da guzi jaten duben gizona!

—¿Eta luak artzen dubenian, zer egiten du?

—¡Zurrunga!

—¡Orduban eztu kantatuko?

—¡Nola nai dezu bi gauza batian egitia!

—Eta iruretan edo labetan lo badago ¿ezta aren kantik izango?

—Bai, gizona; ¡askotaz fiñagua!

—¡Nola!

—¡Andriena! Amabiyetatik aurrera, onek kantatzen du. Beste sere-no begiratu gaistoko bat bada, arratz guziyan ariko litzake musian eta jokatuko luke andria.

—Ta, ¿galduko baluke?

—¡Orren billa dabill bada!

—¿Zenbat pagatzen diote?

—Zazpi errial.

—¿Besterik ez?

—¿Besterik? ¡Ez dezu ikusten egunero dala! ¡Baña leyokuari, zortzi!

—¿Nola!

—Andriena ta beria. Orain aditu detanez, ¿badakizu Ayuntamentubak zer egin biar diyon gizon orri?

—¡Bota!

—¡Kabo!

—¿Ez alda bada lenago kaborik?

—Bat bada, baña okintegira joaten da.

—¿Ogiya egitera?

—¡Ka! ¡Lotara! ¿Ez dezu ikusten kabua dala?

—Eta alkatiak ¿zer egiten du?

—Or joaten da arrazetan iru andreterekin, nik eztakit nora.

—¿Serenuen andriakin?

—Ez, gizona; bere familikuakin.....

—Izketaratu geran kasuan eta berriyabek guziyak eman dizkiazun meriyo, egin biar dirazu mesere chiki bat.

—¡Ez chikirik eta ez aundirik! Ez det ardit zulatu bat ere; briskan galdu ditut guziyak.

—Orra: esatia botika bat, non billatu nezakian.

—¿Botika? Begira; au da Eskotilla kalia eta emendik eskuira bostgarren kantoyian dezu botika.

—¿Zer izen du?

—Jandalo; nagusiya anketan esagutuko dezu; bada aren oñetakuak, bandurrien kajak dirudite. Jaten ere oso chokantia da; tripakiyak jabo-yakin garbituta nai ditu.

—Esker milla eta araše nua; gabon ta barkatu.

—Zuaz ondocho. ¡A! Eta atiari ez eman golpe aundirik.

—Zergatik.

—Mutilla zurrungan egongo da ta, esnatu ezdeyen.

VICTORIANO IRAOLA

